

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko otsailaren 18a / 616. zenbakia



AGORROSIN BERRIA

Datorren urteko udarako gertu egongo dira barruko igerilekuak

KULTURA: IDOIA AZKARATERI ELKARRIZKETA/11 • SAN JOXEPE: ZUZENDARITZA BERRITZEKO DEIA/13

AZALA: MAITENA ARANA / JATORRIZKO ARGAZKIA: ARTXIBOA

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 18**
MOZOS, Iparragirre 2. 943 76 12 15
- ZAPATUA, 19**
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
- DOMEKA, 20**
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 21**
ZABALA, Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- MARTITZENA, 22**
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 23**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
- EGUENA, 24**
MOZOS, Iparragirre 2. 943 76 12 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kirolegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK. 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|-------------------------|--------------------------------|
| San Pedro | Labegaraieta |
| Domekak: | Domekak: 11:00. |
| 09:30. | San Lorentzo |
| Zapatuak eta lanegunak: | Zapatuak: 20:00. |
| 19:00. | Angiozar |
| Santa Marina | Domekak: 11:00. |
| Zapatuak: | Moja Zaharrak |
| 19:00. | Lanegunak: 08:00. |
| Domekak: | Mizpirualde |
| 13:00. | Lanegunak: 11:45. |
| Sierbak | Zapatuak: 17:30. |
| Lanegunak: 19:30 | Antzuola |
| Osintxu | Domekak: |
| Domekak: 12:00. | 10:00, 11:30. |
| Elosu | Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| Domekak: 11:00. | Uzarraga |
| Ubera | Domekak: 10:00. |
| Domekak: 10:30. | Elgeta |
| San Juan | Lanegunak: 09:00. |
| Domekak: 11:00. | Zapatuak: 19:30 |
| Elorregi | Domekak: 12:00. |
| Domekak: 10:30. | |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan, 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean.

OHARRAK

1979AN JAIOTAKOAK
1979an jaiotako bazkaria martxoaren 19an, Txarran-txa jatetxean. Izenematea (30 euro) Kutxan irekitako kontuan, otsailaren 24ra arte. Bazkari egunean 11:00etan elkartuko dira, San Martin plazan.

MARIAREN LAGUNDIKO ZOZKETA
Mariaren Lagundiko DBHko 4. mailako ikasleek egindako zozketan, 2.576 zenbakia izan da saritua. Txartelaren jabeak Zumelaga jatetxean bi lagunendako afaria eskuratuko du.

ETXERAT-EN ESKERRONA
Bergarako preso eta errefuxiatuen familiarrek eskerrak eman nahi dizkiete Gabonetan laguntza eman zuten herritar guztiei.

ODOL ATERATZEA
Hurrengo odol ateratzea martxoaren 2an egingo dute, Seminarioan, 18:30ean hasita.

JARDUNENAGENDA

TXAPLIGU TALDEA
Bihar, zapatua, antzerkia Arrizuriagan, 16:00etan. Domekan, berriz, herri kirolak izango dituzte Txapligu taldekoek, ohiko ordutegian.

TXISKRILABI TALDEA
12-14 urte bitartekoak 16:00etatik 18:00etara elkartuko dira Udal Euskaltegian, Zabalotegin, eta 14-16 urte bitartekoak, berriz, 18:00etatik 20:00etara. Eztatidak, irteerak, eskulanak, solasaldiak eta beste hainbat jardura izango dituzte aste bukaeran.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERGARAN

Ibai garbien aldeko ekimenak ekologisten eskutik

Ibaiak eta gu. Ibaiaren osasuna, denon osasuna kanpainaren barruan, Mendia Bizirik talde ekologistak antolatutako landaketa egin zuten 1994ko otsailaren 18an. Ibai ertzetan haltzak eta sahatsak landatzeaz gain, lau basahate bikote askatu zituzten Mendia Bizirik taldeko kideek.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Mesaonotxe”



Mesaonotxia.
— Mesaonotxe gainian dago zure erlojua.

JON IRAEGI

HAUGIROA!

MINIMOA -2 °C
Eguaztena, 9

MAXIMOA 16 °C
Eguena, 10

ASTEKO EURIA (l/m²) 99,8 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 9	14 °C	-2 °C	- l/m ²
Eguena, 10	16 °C	1 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 11	15 °C	-1 °C	3,2 l/m ²
Zapatua, 12	14 °C	7 °C	6,1 l/m ²
Domeka, 13	10 °C	9 °C	29,3 l/m ²
Astelehena, 14	8 °C	5 °C	38,4 l/m ²
Martitzena, 15	7 °C	4 °C	22,8 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKOPELIKULAK

‘ALEJANDRO MAGNO’

ZUZENDARIA: OLIVER STONE. AKTOREAK: COLIN FARRELL.

HARIA. 25 urterekin Alexandro Handia munduko konkistatzaile boteretsuenetakoa zen. Guraso, lagun, emazte eta jeneralekin ere borroka handia zeukan...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan 16:30ean, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 16:30ean, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna).

PUNTAUZIOA: ● ● ● ● ●



‘DÍAS DE SANTIAGO’

ZUZENDARIA: JOSUE MENDEZ. AKTOREAK: PIETRO SIBILLE, MILAGROS VIDAL, MARISELA PUICON, ALHELI CASTILLO.

HARIA. Ekuadorren kontrako gerran parte hartu duen 23 urteko soldadu ohia dugu Santiago Roman. Lima hiriburura bueltatzean, gainbehera dagoen gizar-tea aurkituko du eta zaila egingo zaio lekua topatzea...

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean, otsailaren 24an, 20:00etan. Zineklubeke emanaldia.

PUNTAUZIOA: ● ● ● ● ●

EL CARMEN
GARBIKETA ZERBITZUAK

Lantegien garbiketa eta mantenimendua
Banketxe, Ikastetxe eta Bulego Kontserbazioak
Moketa garbiketak
Garajeen garbiketa eta mantenimendua

Zubieta 28 - Tel.: 943 76 56 15 Faxa: 943 76 73 39
20570 BERGARA - Sakelakoa: 609 16 33 23

FRONTOI

TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

ATREBENTZIAEZPADA/ Baduzu asmorik Europako Konstituzioaren erreferendumean botoa emateko?



AIZPEA URIBE
33 urte

Bai, botoa emango dut. Gainera, argi dut ezetz bozkatuko dudala. Izan ere, konstituzio horrek ez digu ezer onik ekarriko. Uste dut jendeari saltzen diotena ez dela benetan dena.




JAVIER MURILLO
30 urte

Ez dakit joango naizen, azken momentuan pentsatuko dut joan edo ez eta baita zer bozkatu ere. Telebistan berriak ikusten ditut, baina politikoak irteten direnean aldatu egiten dut.



JOSEFA ORTIZ
52 urte

Bai, dudarik gabe bozkatuzera joango naiz. Konstituzioa irakurri dut informatuta joateko. Jadanik argi daukat domekan zer bozkatuko dudana, baina botoa sekretua da.




JOSE INAZIO MARTINEZ
61 urte

Botoa ematera joango naiz, eta, gainera, argi daukat ezezko botoa emango dudala. Konstituzioaren gainean ez dakit gauza askorik, irakurri ere ez dut egin, baina uste dut ez dela egokia.



MARI CARMEN OTAÑO
47 urte

Bai. Konstituzioa pixkanaka irakurtzen ari naiz, bota-tzerá joateko jakin behar delako zeren gainean ematen dugun botoa. Konstituzioak baditu bere alde onak, baita txarrak ere.



GOTZON MENDIZABAL
27 urte

Bai, botoa emango dut. Egia esan, ez dut informazio askorik konstituzioaren gainean eta irakurtzeko astirik ere ez daukat. Hala ere, bozkatuko dut, nahiz eta oraindik zer ez dudana erabaki.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK SAN JOXEPEKO ABESBATZARI San Martin Agirre Herri Eskolako Zabalotegiko ikasleek eta irakasleek eskerrak eman nahi dizkiete San Xosepe Erretiratuen elkarteko abesbatzakoei. "Santa Ageda bezperan gure ikastetxera etorri eta txikienei abestu zieten. Euren ahalegina eskertu eta txalotu nahi genuke, eta hurrengoan ere zain egongo garela esan", jakinarazi digu irakasleak. //A.

ETABARRUAN...

ASTEKO /5

Zuhaitz Eguna

Zuhaitz Eguna ospatzeko erakusketa San Martin plazan eta landaketa San Martzialen, zapatuan.

KIROLA /8

David Urbina, Taurekin

David Urbina, infantil mailako Tau taldearekin izango da aste bukaeran, Zaragozan.

KULTURA /11

Idoia Azkarate Nahikarin

Idoia Azkaratek margo erakusketa jarri du otsailaren bukaerara arte Nahikari tabernan.

IRAKURLEAK MINTZO

ARATUSTEETAKO JAI BATZORDEARI

Astearte arratsaldean, 16:30ak aldera haurren desfilea bukatu da. Ondoren Musika Eskolako Txarangaren kalejira iragarrita dago. Egin, egiten da kaleetan zehar, baina bitartean herriko plaza jendez gainezka. "Eta orain zer dago, ama? Ez dakit, ume". Handik "gutxira" 18:30ean erraldoi, kili eta buruhandien kalejira. Denbora aurrera doan heinean iluntzen hasi da, hozten ari da, eta umeak aspertzen ari dira nekaketa daudelako. Kontuan izan behar da otsailean gaudela eta geldi egoteak zer suposatzen duen. "Eta orain zer dago, ama? Diskotop festa iragarrita dago, ume. Baina lasai, berehala hasiko da eta. 19:30ak jo baina musikarik ez. Ia-ia 20:00ak dira musika hasi denerako. Ordurako herriko plaza erdi hutsik. Bi disko entzun eta bat-batean musika isildu da. Arazo teknikoak edo. Pena ematen dute plazan gelditu diren ume gaixoei. Hau al da gonorazko Aratusteetako jaia? Umeendako hain berezia den jaia ezin al da beste modu baten antolatu? Hain zaila al da txaranga batplazan giroa sortzen aritzea? Umeei zuzendutako ikuskizunak eta jaiak baldin badira ezin da ordu-egia aurreratu eta ordu egokietan hasi? Egun berezi hauetan umeek eta hauen gurasook kontuan izatea merezi dugula uste dut. Beraz, aurtengoz Jai Batzordeari "gutxiegi" nota ipiniko diot. Eta ea datorren urtean nota altuagoa lortzen duten. MARIAN PADILLA

BERAIEK DINDE/ Maite Aristegi



Artzainak ertzain?

Eguna gerturatu ahala, gero eta ugariaguak bihotz bariko europar Konstituzioari ezezko borobila emoteko arrazoiak. Aldeko boto epelarekin dabilzanen artean zera entzun izan dot: garapen ekonomikorako, lana sortzeko... ona izango ei da. Baina zeinen garapena? Zer lanetarako? Eta hara non pista bat topau doten! Abisau doskuenez, hemendik aurrera, jendeak lo egiteko edozein etxe daukanak, (baita nekazal-ismoak be) lotara datozen danen datu mordo bat eta sinadurara hartu eta 24 ordu baino lehen Ertzantzari pasa beharko dotza. Hau markia! Lehengo lanez gain, orain datozenak zaintzen hasi behar! Artzaiak ertzain? Mesfidantzan, beldurrean, kontrolean oinarritutako Estatu eta Europa polizial baten ispilu. Danok bata bestearen salatari nahi gaituzte. Intimidade, pribazidade, askatasun, lasaitasun eskubideak nun? Eta ez da txokatzekua neurrixok orain jartzea indarrean, "bota" behar dogun konstituzi-

noak, jendeari mugak itxi, OTANen menpeko Europar ejerzito bat sortu, armamentutan gastua gehitu, heriotz zigorra berriz indarrean jartzeko aukeria eta halako harribitxiez-diharduenean. Gatazka politikoki demokratikoki eta era bake-tsuan konpondu beharrean, militarismoa bultzatu. Kontrola eta errepresinoa, arazoak muinera joanda konpondu beharrean. Estimauko dau Banko Zentralak, Europako Jainko berrixak (p hizkia be laster kenduko dotze Europa-ri). Hori bai, bape mamin bariko asmo onak nonahi agertzen dira. Esaterako, danok ei daukagu ordaindutako lana izateko eskubidea. Eta Ertzantza hasi da kontuak etartzten, zenbat ertzain beharko diren datuok mogitzeko. Hara hor lanpostu berrixak! Baina guri ez dozku inork galdetu ez "lan" berri hau gustatzen jakun ez eta zeinek ordaindu behar daben. Gutxienez domekan entzun deixela hau ez dala guk nahi dogun Europa.

"Hau markia! Lehengo lanez gain orain datozenak zaintzen hasi behar!"

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Maria Agirre
Irati Agirreazaldegi
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

HIRIGINTZA/ Diputazioak 2,1 milioi euroko dirulaguntza eman dio Udalari; 2006ko ekainera arte 7,5 milioi euroko inbertsioa aurreikusten dute

Agorrosingo barruko igerileku berria 2006ko ekainerako bukatuko dute

EDU MENDIBIL


Agorrosingo barruko igerileku berria 2006ko ekainerako amaituta izango da. Hala adierazi zuten Victoriano Gallastegi alkateak eta Alvaro Amezaga arkitektoak martitzenean emandako prentsurrekoan. Udalak 2,1 milioi euroko dirulaguntza jaso du Diputazioarengandik.

Alkatearekin batera, Fernando Tapia Gizarte eta Erakunde Harremanetarako diputatua, Iñaki Ugarteburu Diputazioko Kirol zuzendaria, Valentin Egidazu Bergarako Udaleko Kirol zinegotzia eta Alvaro Amezaga arkitektoa izan ziren martitzeneko prentsurrekoan. 2004-2007ko aldiko Inbertsioen Aparteko Planaren barruan, Diputazioak 2.103.000 euroko dirulaguntza eman dio Bergarako Udalari. Victoriano Gallastegi alkateak Diputazioaren laguntza eskertu zuen martitzenean: "Bergararendako oso proiektu garrantzitsua da kirolgune berriarena eta badakigu Diputazioarentzat esfortzu handia dakarrela".

Iñaki Ugarteburu Diputazioko Kirol zuzendariak adierazitakoaren arabera, kirol ekipamenduetarako banatutako dirulaguntza handienak jaso dituzten herriak Tolosa eta Bergara izan dira: "Biek ere orain dela 30 urteko instalakuntzak zeuzkaten eta horregatik Diputazioak ahalegin berezia egin du Tolosa eta Bergarako herrien proiektuak babesteko".

ESTALITAKO BI IGERILEKU

Victoriano Gallastegi alkateak eta Alvaro Amezaga arkitektoak esan zuten, barruko igerileku berria 2006ko ekainerako amaituta egongo da. Amezaga eta Jorge Muntaniola dira kirolgune berriko proiektuaren egileak. Amezagak martitzenean zera adierazi zuen: "Lehenbizi barruko igerilekua amaituko dugu. 2006ko ekainerako zabalik egotea da gure asmoa eta lanak zelan doa-



2006ko ekainerako barruko bi igerilekuak gertu egongo dira eta ondoren kanpoko egingo dute.

zen ikusita, lortuko dugu. Alde batetik estalitako bi igerileku egongo dira gertu ordurako; horietako bat 21x25 m neurrikoa izango da, igeri egiteko urte guztian zabalik izango dena eta bestea, berriz, 16,5x6,5 m ingurukoa da, haurrek-eta erabili ahal izango dutena. Beste berritasunetako bat zera izango da: igerilekuak altzairu herdoilgaitzekoak izango dira, eguneko joerari jarraituta. Bestalde, aldagelak, gimnasioa eta frontoi txiki bat ere amaituta izango dira datorren urteko udarako".

KANPOKO IGERILEKUA, AZKENERAKO

Lehen fase hori, esan bezala, 2006ko ekainerako amaituta egongo da. Ordura arteko lanen aurrekontua 7,5 milioi euro da.

Aurrekontu horretatik dagoeneko bi milioi euro inbertitu ditu Udalak kirolgune berrian. Antzibar SL enpresa joan den

irailaren 15a ezker dabil kirolgune berriko proiektuan lanean. Bergarako Udalak Antzibarri adjudikatu zizkion hasierako lanak, bi milioi eurotan hain zuzen. Instalazio berriaren egitura eta ur zikinaren hoditeria jartzeaz arduratuko da Antzibar maiatzaren erdialdera bitartean. Jarraian, barruko igerilekuak, eraikina eta ekipamendua egiten hasiko dira. Datozen asteotan lehiaketara aterako dute lanen adjudikazioa.

Azken fase baterako geratuko da kanpoko igerileku berria. Proiektuaren arabera, neguan estalkia izango duen jolas igerilekua izango da. Inguruan, berriz, 2.000 m² inguruko berdegunea izango du. Eguzki indarreko plakak jartzea ere aurreikusten da Azken faseko aurrekontua bi milioi euro ingurukoa izango dela aurreratu dute.



Udaleko eta Diputazioko ordezkariak lanak ikusten izan ziren martitzenean.



ZUHAIZTI
taberna

Eguneko menuak!

Astelehenerik ostiralera
eguneko menuak Zuhaitzin.

Ordutegia: 12:30etik 15:00etara.

Espaloia 6 Bergara Tel.: 943 76 59 22

HIRIGINTZA/ Proiektuaren lehen fasea uda parterako abian jarri nahi du Udalak

Goenkalea, Arrurriaga eta Artekalea, urbanizatzeko zain

E.M.

Artekalea, Arrurriaga, Goenkalea eta kantoiak urbanizatzeko proiektua abian jarri du Udalak. Iñaki Aspiazu arkitektoak egindako proiektuaren arabera, lanek 1,3 milioi euroko aurrekontua izango dute. Uda parterako lanekin hastea nahi du Udalak.

Iñaki Aspiazu arkitektoaren proiektu teknikoak bi fasetan banatzen ditu lanak: lehen fasean Artekalea eta Arrurriaga kaleak urbanizatzea jasotzen da eta bigarren fasean, berriz, gelditzen den eremua egingo litzateke. Lehen fasea egiteko baldintzen plegua kaleratu du Udalak dagoeneko. Lehen fase horren aurrekontua 847.521 eurokoa da eta lanak uda parterako hastea da Hirigintza batzordearen asmoa.

GALTZADA-HARRIA BISTAN

Ur hoditeria aldatu eta espaloiak berritzeaz gain, bestelako txukuntze lanak egingo dituzte Artekalean, Arrurriagan eta Goenkalean eta San Pedro parrokia eta udaletxe artean dagoen eremuan bezala, galtzada-harria bistan lagako dute.

ESTUDIO ARKEOLOGIKOA ARTEKALEN

Artekalek eta Goenkalek Zonalde Arkeologiko Inbentariatua izendapena daukate eta hori dela eta, urbanizazio lanak egin aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundia-



Artekalean ere galtzada-harria bistan lagako dute lanak egin eta gero.

ren baimena lortzea beharrezkoa da. Horretarako, baimen eskaerarekin batera proiektu arkeologikoa aurkeztu beharra dago. Beraz, Udalak arkeologo profesional baten zerbitzuak kontratu behar ditu, egin beharreko interbentzio arkeologikoa zehaztu dezan. Azkenik, Bergarako Udalak estudio arkeologikoa idatzi eta interbentzio arkeologikoa

egitea Arkeolan enpresari adjudikatu dio, 6.650 eurotan.

Foru Aldundiko teknikariek Arkeolanek egindako proiektu arkeologikoa aztertuko dute eta dena bere onean baldin badago, baimena emango du urbanizazio lanen bi faseak egiteko. Urbanizazio lanak egiten dituen enpresak eta Arkeolanek koordinatu egin beharko dute lan.

12.427 herritarrek izango dute domekan bozkatzeko aukera

ERREDAKZIOA

Domekan, Europako Konstituzioaren gaineko erreferendumean, 12.427 herritarrek izango dute bozkatzeko aukera. Hauteslekuak 09:00etatik 20:00etara izango dira zabalik.

Bergaran 19 mahai egongo dira eta herritarrek Seminarioan, Matxiategin, Martokon, Ibarra eta Osintxun izango dute botoa emateko aukera. Hautestontzietara hurbiltzen diren galdera honi erantzun beharko diote: *Europarendako Konstituzio bat ezartzen duen proiektua onartzen duzu?*

Galdera euskaraz idatzita ere azalduko da EAEko bozketa orrie-

tan. Erreferendumeko galdeketa ez da Europako Konstituzio baten ingurukoa, hori ezartzen duen Itunaren ingurukoa baizik. Ituna Europar Batasuna osatzen duten 25 estatuetakordezkariek sinatu zuten urrian. Espainia da erreferenduma egingo duen lehenena.

Europako Itunaren Erreferendumaren kanpaina gaur, egubakoitza, amaituko da. Kanpainak ez du ikusmin handirik sortu herritarren artean eta joan den ekainaren 13ko Europako Hauteskundeetako abstentzioa berriz errepikatzen ez ote den susmoa dute adituek. Orduan %56,3ko abstentzioa izan zen Debagoienan. Azken erreferenduma 1986an egin zuten, NATOren gaineko kontsulta, hain zuzen ere.



Hauteslekuak 09:00etatik 20:00etara izango dira zabalik domekan.



Zuhaitz Eguna: erakusketa plazan eta landaketa San Martzialen

Bihar, zapatua, Zuhaitz Eguna ospatuko da. Ohikoa denez, baso lanerako tresneriaren eta hainbat zuhaitz motaren erakusketa eta salmenta postuak izango dira San Martin plazan, 09:30etik aurrera. Era berean, Mariaren Lagundia, San Martin eta Aranzadi ikastetxeetako gaztetxoak gonbidatu dituzte eguerdiko landaketan parte hartzeko. Aurten zuhaitz landaketa San Martzialen egingo dute. Autobusa azoka aurretik aterako da, 10:30ean.

LABUR

'Bergarako sukaldari gazteen zikloa' abian jarri dute Gure Ametsa elkarteak

Gure Ametsa elkarteak *Bergarako sukaldari gazteen zikloa* izenburuko ekimena antolatu dute. Hala, herriko hainbat sukaldari igaroko dira elkartetik hurrengo hilabeteotan. Lehenbiziko hitzordua Imanol Rementeriarekin egingo dute eguenean, otsailaren 24an. Egun horretako afarira joan nahi dutenek otsailaren 21era arte dute izena emateko epea. Prezioa 24 eurokoa da.

Doaneko ardo dastatze ikastaroa izango da kultur etxean datorren martxoaren 18an

Bergarako Kultur Zerbitzuak ardo dastatze ikastaroa iragarri du datorren martxoaren 18rako. Saio bakarra izango da kultur etxean egun horretan, 19:00etan. Izenematea doanekoa da eta interesatuek kultu etxera edota 943 77 91 59 telefonora jo dezakete izena emateko. Plaza mugatuak izango dira.

Langileei zuzendutako ikastaroak Miguel Altunan martxoaren erdialdean hasita

Miguel Altuna ikastetxeak langileei zuzendutako ikastaroak eskainiko ditu martxoaren erdialdetik aurrera. Ondoko ikastaro hauek emango dituzte: CNC fresagailuko programatzailea, CNN fresagailuaren prestaketa eta programazioa eta CAM Unigrapfic ikastaroa. Interesatuek 943 76 70 49 telefono zenbakira jo dezakete argibide eske.

GIZARTEA/ Komite Internazionalistak taldeak antolatu du emanaldia; filmak nazioarteko hainbat sari jaso ditu

'Bagdad Rap' dokumentala emango dute eguenean, kultur etxean

E.M.

Komite Internazionalistak taldearen eskutik, *Bagdad Rap* izenburuko dokumentala eskainiko dute hurrengo eguenean, hilaren 24an, kultur etxean, 19:30ean.

Filma 2004ko uztailean estreinatu zuten Los Angelesko Zine Jaialdian eta ordutik hona hainbat sari jaso ditu nazioartean. Arturo Cisneros zuzendari nafarra Irakeko gerra hasi baino lehen joan zen Bagdadera eta sasoi hartan hiriak eta herriak jasaten zuten egoera islatzen ahalegindu da. Hain zuzen ere, kaleko jendea da filmeko protagonista nagusia. Biztanleen ikuspegitik gerraren ondorioak ezagutzeko aukera izango dute ikusleek. Besteak beste, familia eta bi besoak galdu dituen Ali 12 urteko gaztetxo, medio eskasekin lanean ari den Hassan medikua, minbizia jasaten duten umeak eta bestelako irakiarrek azaltzen dira dokumentalean. Cisnerosek azaldutakoaren arabera, amorruez egin zuen filma, Irakek jasandako egoera gaitzesteko.

RAP DOINUAK

Filma adin guztiko jendeari zuzenduta badago ere, gazteek ikustea duen garrantzia azpimarratu du Cisnerosek. Rap eta hip-hop musikak berebiziko



Arturo Cisneros zuzendari nafarrak Irakek jasandako egoera gaitzetsi nahi izan du *Bagdad Rap* filmean.

ARTXIBOA

garrantzia dauka filmean eta Ari, Fank T, Zenit, Selektah Kolektiboa, Kase-O, Sr. Rojo edota Mikel Salaren doinuak irudien lagungarri dira.

Filmak 75 minutuko iraupena dauka. Egueneko emanaldian Javier Barandiaran Komite Internazionalistak taldeko kideak egingo ditu aurkezpen lanak.

Hurrengo asteotan, Iran, Miami, Australia edota Nafarroako Dokumental jaialdian erakutsiko dute Arturo Cisnerosen dokumentala.

LABUR

Txorimalo lehiaketarako izenematea zabalik

Jardun elkarteak Txorimalo Lehiaketa deitu du Erramu Zapaturako, martxoaren 19rako. Ohikoa denez, partaideen adinaren arabera, hiru talde bereiztuko dituzte eta onenendako sariak egongo dira.

Izena emateko epea martxoaren 11ra arte izango da zabalik. Argibideak Jarduneko bulegoan (Errotalde) edota 943 76 08 19 telefonon.

Bertso afaria bihar, zapatua, Arrano elkartean

Bihar, zapatua, otsailaren 19an, bertso-afaria izango da Bergarako Arrano elkartean, 21:00etan.

Xabier Silveira eta Arkaitz Estiballes bertsolariak izango dira bertan. Afarirako txartelak salgai daude ohiko tokietan, 20 euroren truke. Langa-betuendako eta ikasleendako, berriz, 12 eurotan salduko dituzte. Antolatzaileek dei egiten diete bertsozale guztiei afarira joateko.

Xabier Silveira Lesakakoa dugu eta Arkaitz Estiballes, berriz, Galdakaokoa. Biek ala biek izango dute biharko afarira girotzeko ardura.

Kolektoreko lanek eragindako aldaketa berriak herri barruan

E.M.

Sobrino enpresako langileek aurrera jarraitzen dute ur kolektore lanekin herri barruan. Lanek hainbat aldaketa eragin dituzte asteen zehar: esaterako, Barrenkalen, Gaspar jatetxearen ondoan, San Martin plazara edota Irizar kalera egin beharko dute gidariak. Irizarren, aldapan behera jo beharko dute gidariak eta handik beste bi aukera izango dituzte: Zubietara, San Lorenzo edota Matxiategi aldera joateko Infernukua tabernako pasotik joan ahal izango dira eta Ibargaraitik, berriz, saihesbidera jo ahal izango dute. Hainbat hilabetetan itxita izan ondoren, aste honetan Ibargarai kalea zabaldu dute Miguel Altuna institutuaren parean. Egunotako eguraldiaren ondorioz, Ibargarai kalea erabat lokaztuta dago.

Bestalde, Kruz Gallastegiko garajeetara dagoen sarbidea itxita dago urtarrilaren 31tik eta jabeak haserre daude. Asko jota, astelehenerako zabalduko dute la esan du Udaltzaingok.




Ibargaraitik Zurraderoko zubirako pasoa itxita dago.

E.M.



Ibargarai kalea zabaldu egin dute, behin-behinerako, asteen.

E.M.



Kruz Gallastegiko garajeetako pasoa itxita dago urtarrilaren 31tik.

E.M.

MINGAINARITIRAKA



Maria Eugenia Igartza

Igarza dendakoa

Dendari aritzea oso gustuko duela esan digu Maria Eugeniak. 14 urterekin, jertseak egin eta artileak saltzen hasi zen. Geroago, ama izan eta jertseak egiteko tailerra itxi egin zuen, baina barruko arropa eta pijamak saltzen hasi zen.

San Valentín eguna igarri zen Bergaran?

Apur bat bai. Beti etortzen da norbait barruko arropak erostera. Gehienetan gizonezkoak izaten dira, gazteak.

Zuk zeuk ospatu zenuen?

Ez dut ohiturarik, eta ez dut inoiz ospatu. Hala ere, akordatu beti. **Salmentei dagokienez, Maiteminduen Eguna indarra hartzen ari da?**

Indarra hartzen ez, baina asteburuan egokitzen bada San Valentín, gehiago saltzen da.

Gizonezkoak etortzen dira barruko arropak erostera?

Bai, gero eta gehiago. Euren dako eta emazte edo neskalagunarendako erostera etortzen dira.

Emakumeendako erosi behar badute, zenbat denbora behar izaten dute aukeratzeko?

Gutxi, segituan aukeratzeko dute. Gainera, gehienetan erabaki egokia hartzen dute.

Txarto pasatzen dute?

Ez, ez. Zein neurritakoak erosi behar dituzten ere jakiten dute.

Tanga erakustea polita iruditzen zaizu?

Bai, tanga polita bada, zergatik ez!

Aste Santuan kanpora joango zara?

Urtetan Benidormera joan izan naiz, baina aurten hemen geratuko naiz.

Domekan erreferenduma: erabakia hartu duzu?

Bai, zer bozkatu erabakita dut.

Kirolak egiten duzu?

Egunero oinez ibiltzen naiz, ordubetez. Herrian ibiltzen naiz.

Bihotzeko albisteak axola zaizkizu?

Bai, dibertigarriak dira. Hala ere, gaur egun gehiegi dago.

Carlos printzea ezkontzera doa.

Azkenean, ezkondu egingo da. Ez dakit zergatik ez zuen erabaki hori lehenago hartu.

Ronaldorena bai ezkontza. 700.000 euro kosta zaie.

Diru gehiegi gastatu dute, ez dago horretarako eskubiderik. Nire ezkontza apalagoa izan zen, baina oso gustukoa.

MARIA AGIRRE

NIREBIDAIAHURA / Joseba Otaño

Zeelanda Berria / 2004ko urrian

Berriro ere Zeelanda Berrira joango litzatekeela esan digu Joseba Otañok. Hori esanda, argi dago merezi izan zuela Joseba eta bere emazte Karmelek iazko urrian egindako bidaiak. Eztei-bidaia egin zuten Ozeaniako inguru eder horretara.

Hori bai, Josebak argi du berriro ere karabanan egingo lukeela bidaia: "Zeelanda Berria oso ondo prestatuta dago karabanan joateko. Kanpinak oso erosoak dira, eta errepideetan nahiko seinale dago. Karabana bat alokatu genuen bertan, eta hori bai, kilometro mordoa egin. Guztira 6.000 kilometro egin genituen".

Josebaren esanetan, Zeelanda Berrian oso desberdinak dira hegoaldea eta iparraldea: "Hegoaldea paradisua da, mendiz inguratuta, ibilaldiak egiteko aproposa; iparraldea, berriz, bolkanikoagoa da. Hegoaldean milioi bat biztanle bizi dira, eta iparraldean, hiru. Nire ustez, Zeelanda Berria kontraste handiko herrialdea da. Glaziar bat bisita dezakezu, eta handik 100 kilometrora, hondartza tropikal bat". Joseba eta Karmelek hegoaldea bisitatu zuten lehenik eta behin: "Cook mendiaren alboan dagoen mendikatera joan ginen. Horretarako, helikoptero bat hartu behar izan genuen. 4.500 metroko mendiak ikusi genituen, guz-



"Zeelanda Berria ondo prestatuta dago karabanan joateko. Kanpinak oso erosoak dira"

"Kontraste handiak ditu: glaziar bat bisita dezakezu, eta 100 kilometrora, hondartza tropikala"

kultura apur bat ezagutzeko asmoarekin". Gai nontzean, maorien kultura zaharra izan arren, Zeelanda Berriko hiriak oso berriak direla esan digu. Hiriburuan, Wellingtonen, egon ere ez ziren egin.

MARIA AGIRRE



Cook mendiaren alboan dagoen mendikatera joan ziren Joseba eta Karmele.

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043

Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

ARANE
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

margolan
m a r g o a k

- ▶ margo orokorra
- ▶ margo dekoratiboa
- ▶ umeentzako dekorazioak
- ▶ feng shui estudioak
- ▶ bidriren margolanak
- ▶ Imitazioak

Sagasti auzoa Z^a 5-3D
20577 ANTZUOLA-HERNANI
Tel.: 943 76 62 13 / 665 733 955
687 570 777

SASKIBALOIA

David Urbina, infantil mailako Tau taldearekin Espainiako Txapelketara

Urbina kadete mailako Tau taldea entrenatzen dihardu, baina gaztetxoekin izango da Zaragozan, aste bukaeran


EDU MENDIBIL

David Urbina bergararrak infantil mailako Tau saskibaloia taldea zuzenduko du Espainiako Kopa txapelketan, aste bukaeran. Zaragozan ACB Kopa jokatu duten zortzi taldeen infantil mailako taldeak lehiatuko dira egubakoitzetik domekara bitartean.

David Urbina (29 urte) 2. mailako entrenatzaile titulua dauka eta Bergarako senior mailako taldea gidatzeaz gain, Tauko kadete mailakoa entrenatzen du Fernando Diazekin batera. Talde horretan Ander Garcia bere iloba ari da jokatzeko. Antxon Hernandez gaztetxoak ere izan zuen gasteiztarrekin jokatzeko aukera, baina Bergaran jarraitzea erabaki zuen. Antxon eta Ander Espainiako kadete mailako txapelketan izan ziren Gabonetan, Santiagon. Euskadiko selekzioa 6. tokian sailkatu zen eta bi jokalarik bergarrek txapelketa bikaina egin zuten.

ANDER GARCIA ILOBA TALDEAN

Kadete mailako Tau taldeak denboraldi borobila egiten dihardu. Arabako Liga eskuratu ondoren, Euskal Ligan ari dira eta partidu bakarra galdu dute orain arte, Azpeitiaren aurka. Hain zuzen, Azpeitia, Easo eta Salleko taldeekin batera, sailkapeneko lehen postuan dira Taukoak. Arabako hiru talde, Gipuzkoako bi eta Bizkaiko beste hiru lehiatzen ari dira Euskal Ligan. Ander Garcia zerikusia handia du taldearen martxa onean, 20 puntuko media lortzen dabil-eta. 1,80 mko altuerarekin, tiratzaile aparta dugu Ander. David Urbina zera adierazi digu bere ilobaren gainean: "Oraindik oso gaztea da eta defentsa eta abiadura hobetu beharra dauka. Bestalde, duen tiroa eta jokoaz duen ikuspuntua nabarmenduko nituzke".



Kadete mailako Tau saskibaloia taldea. Bigarren ilaran jarrita dauden artean, ezkerretik hasita, hirugarrena da Ander Garcia.

Bergara KEko senior mailako taldea ere zuzentzen du Urbina

ZARAGOZAN ASTE BUKAERAN

Infantil mailako Espainiako txapelketari begira, ilusioz dago Urbina: "Faboritoak Bartzelona, Real Madril eta Estudiantes izango dira, baina txapelketa txukun bat egin eta disfrutatze asmoarekin goaz". Era berean, ACBko Kopa


Txapelketa jarraitzeko aukera izango dute. Daviden ustetan, Pamesa, Unicaja eta Tauren artean izango da txapelduna: "Kopan ondo ibili izan da Tau azken urtetan eta ea irabazterik daukaten... Gustuko jokalaria? Garbajosa, Rackocecic eta Scola funtsezkoak izan daitezke euren taldeendako, sasoi betean daude-eta".

Euskal Herrian saskibaloia- ren egoera ez dela onegia dio Davidek: "Beste komunitate batzuekin alderatuz, nahiko behan gaude; gaztetxoek futbolerako jotzen dute gehiago... Gaztetxoekin ez da lan gehiegi egiten eta jokalarik bat irtetzen denean kan-

poko taldeek eramaten dute. Taurik ere kanpotik ekartzen ditu jokalarik gehienak. Deigarria da Tau eta Lagun Aron hemengo jokalaririk ez egotea...". Bergaran, berriz, entrenatzaile faltan dardela esaten du. Lau talde dauzka Bergarak aurten; Davidek zuzentzen duen senior mailakoak 85-67 irabazi zion zapatuan Kostkasi.

BI PARTIDU ZAPATUAN

Kadete mailako bi taldeek etxean jokatu dute zapatuan: Lacorrek CD Internacional hartuko du 12:00etan eta Araneta liderrak Beasainen kontra jokatu du Labageraietako kiroldegian, 19:15ean.



David Urbina.

Aste Santuan Alpeetara irteera antolatu du Pol-Polek

E.M.

Pol-Pol Mendizale Taldeko eski sailak Aste Santuan Alpeetara joateko irteera iragarri du. Hain zuzen ere, Motaret-era (Hiru Haranak) joango dira Pol-Poleko kideak, martxoaren 25etik apirilaren 2ra bitartean. Frantziako Alpeetan, Albertvilletik oso gertu dago Motaret eta hango piste-

tan eskiatzeko aukera izango dute Pol-Poleko lagunek. Izenematea dagoeneko zabalik dago eta interesatuek Pol-Poleko bulegora jo dezakete argibide eske. Bulegoa asteleheneetik egubakoitzera dago zabalik, 19:00etatik 20:30era.

Azken urteotan Aste Santuan Alpeetara joan izan dira Pol-Polekoak. Iaz 50 lagun inguru joan ziren eta aurten ere autobus bat

betetzeko asmoa daukate.

BESTE BI IRTEERA IRAGARRITA

Aste Santuaren aurretik beste bi irteera egingo dituzte Pol-Polekoek: otsailaren 25etik 27ra Formigalera eta martxoaren 4tik 6ra Baqueirako eski estaziora.

Argibideak Pol-Poleko bulegoan edota 943 76 48 51 telefono zenbakian.



Alpeetan astebete emango dute Pol-Poleko eski sailekoek.

FUTBOLA

Sailkapeneko 3. tokian dagoen Ordizia hartuko du Bergarak zapatuan

Bergara sailkapeneko 17. tokian dago, eta etxekoek behar-beharrezkoa dute bihar partidua irabaztea

EDU MENDIBIL

Preferente mailako Bergara futbol taldeak Ordiziaren aurka jokatuko du zapatuan Agorrosinen, 16:30ean. Aurreko astean Zumarragan galdu ondoren, jaitsiera postuak saihesteko lehia jarraitzen du Bergarak.

Bergarak galdu egin zuen zapatuan Urolaren aurka, 2-0. Liga aurrera joan ahala taldeak ez du lortzen zuloatik ateratzen. Momentuan 17. tokian dago, 25 punturekin. Bergarak Aloña Mendi (25 punturekin baita ere), Beti Gazte (23 puntu) eta Oiartzun (15) ditu atzetik eta beraien aurretik Urola (26), Mutriku (26) eta Aretxabaleta (27) daude. Ordiziaren kontrako biharko partidua beste final bat izango da etxekoendako.

Bestalde, zapatu goizean beste bi partidua jokatuko dira Ipintzako zelaian: futbol-8ko nesken taldeak Intxaurdi-Altzako taldearen aurka jokatuko du, 10:30ean; ohorezko kadete mailako mutilen taldeak Eibar hartuko du, 11:30ean.



Bergarak ezinbestekoa du etxeko puntuei eustea zuloatik ateratzen hasteko.

ESKUBALOIKO HIRU PARTIDU

Eskubaloian, Bergarako taldeek hiru partidua izango dituzte etxean asteburuan: gazte mailako

nesken taldeak Legazpiren aurka jokatuko du zapatuan, 16:15ean; jarraian, 17:45ean, Euskadiko Ligako senior mailakoak

EHU izango du aurrez aurre; eta, azkenik, domekan, Gipuzkoako Ligako senior mailakoak Donibane hartuko du, 12:15ean.

MENDIA

Pol-Poleko beteranoen irteera hilaren 27an

Pol-Pol Mendizale Taldeko beteranoek Larrea eta Aranzazura irteera iragarri dute datorren domekarako, hilaren 27rako. Aurtengo denboraldiko lehen irteera izango da. Argibideak Pol-Polen, 943 76 48 51 zenbakian.

LABEGARAIETA

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: All Blacks-Belengua. Agirrebe.
10:30: Agirrebeña-Arrano Belengua

ZAPATUAN, KANPOAN

11:30: Komando Piper-Niu Tim PDS
12:30: Canalejas-PDS. K. Piperr.

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: PDS-Txipiron. Ganbara
10:30: Ganbara-Txipiron. Errotag.
11:30: Errotagain-De Resaka Fac
12:30: Fac-Niu Tim. De Resa.
16:00: Fit Automocion-Bayer. KMP
17:00: KMP-Egurre. Fit Auto.
18:00: Irubide-Pagomendi. Egurre
19:00: Komando-SDTNT A Ze Fla.
20:00: A Ze Flaxa-Mongatxurrak SDTNT

DOMEKAN, KANPOAN

16:00: Cosa Nostra-Brescia. Kalaveras
17:00: Pirulotarrak-Kalaveras. Brescia

Goza itzazu OTSAILEKO preziorik onenak

Irteerak Bilbotik

MALLORCA 7 gau	
D'or Tobago Hotela 3* • MO	172€
TENERIFE 7 gau	
Acuario Hotela 2* • MO	236€
LANZAROTE 7 gau	
Siroco Aptu. 2G • OB	178€
KANARIA HANDIA 7 gau	
Green Sea Apth. 2G • OB	215€
TUNEZ 7 gau	
Sindbad Center Hotela 3* • ME	201€
AMSTERDAM 2 gau	
Hem Hotela 3* • OG	444€
ERROMA 2 gau	
Caravel Hotela 3* • OG	314€

Irteerak Bilbotik

LISBOA 2 gau	
Embaixador Confort Hotela 3* • OG	339€
PARIS 2 gau	
Montmartrois Hotela 2* • OG	317€
BERLIN 2 gau	
Agon Lichburg Hotela 2* • OG	414€
LONDRES 3 gau	
Lily Hotela Turista • OG	288€
Irteerak Madrildik	
SENEGAL 7 gau	
La Teranga Hotela 4* • ME	965€
CABO VERDE 7 gau	
Sobrado Hotela 3* • OG	451€

Zure oporren erreserba otsailean eginda eta VISA txartela eskatuta, Week-End Plan taloi bat opari egingo dizugu

Hauek ditu bame: hegazkinean joan-etorria Bilbotik eta Madrildik eta lekualdaketak. Egonaldia logela bikoitzean eta aurretik aipatutako erregimenean. Prezioak pertsonako otsaileko egun konkretuentzat bakarrik. Kontsultatu gehigarriak/deskontuak Espainiako beste aireportu batzuetatik. Tasak, gestio datuak eta karburantzearen igogera ez daude bame. ESERLEKU MUGATUAK. PREZIO HORRETATIK AURRERA. OB: Ostalua Bakarrik; OG: Ostalua eta Gosaria; ME: Mantenu Erdia; MO: Mantenu Osoa; GB: Guztia Bame



VISA ECUADOR-ekin
6 hilabeteko finantzaketa interesik gabe lor dezakezu Doan, eskatzean eta berriztatzean

36€-ko Week-End Plan TALOIA OPARI

Ez irudikatu. Egin.

Orain Ibargarai 2an gaude. BERGARA Telf: 943 76 44 45





MATRIKULAZIO EPEA OTSAILAREN 14TIK 25ERA



SAN MARTIN ESKOLA
HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA
(HH-LH) (2-12 urte)

Boni Laskurain 25 Tel: 943 76 21 47
e-maila: 012265aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/sanmartinagirreeskola

IPINTZA INSTITUTUA
DERRIGORREZKO BIGARREN
HEZKUNTZA (DHB) (12-16 urte)

Boni Laskurain 19 Tel: 943 76 31 42
e-maila: 012981aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/ipintzabhi

ESKOLA PUBLIKOA



GUK EGITEN DUGU



SAN MARTIN
BERGARAKO

IPINTZA
IKASTETXE

M. ALTUNA
PUBLIKOAK

ELKARRIZKETA

IDOIA AZKARATE/MARGOLARIA

“Kolore eta espazioak nagusi dira margotu ditudan koadroetan”

MARIA AGIRRE

Nahikari tabernan erakusketa jarri berri du Idoia Azkaratek. Azken urteotan egindako margolanak jarri ditu erakusgai, eta martxoaren hasiera arte izango da. Duela gutxi, bost urte dela hasi zen Idoia argizariarekin margotzen, eta herrian jarritakoa lehenengo erakusketa du. Laster, baina, Donostian ere izango du.

Zer jarri duzu ikusgai lehenengo erakusketan ?

Guztira 21 koadro jarri ditut, batzuk txikiak eta beste batzuk handiagoak. Kolorea da nagusi guztietan, baina espazioak ere lantzen ditut. Argizariz margotutako koadroak dira.

Zure inspirazio iturriak zeintzuk dira?

Nik ez ditut kopiak egiten, eta paisaiak ere ez ditut margotzen. Azken urteotan egindako bidaiak dira inspirazio iturri. Txinara, Thailandiara eta Indiarra egindako bidaiak. Baina, azken finean, nire barruko sentipenak islatzen ditut margolanetan. Indarra duten koadroak dira.

Duela urte gutxi hasi zinen margolanak egiten. Non ikasi zenuen?

Nire kontura ikasi nuen. Duela bost urte hasi nintzen burubelari koadroak egiten. Lagun batek animatu ninduen. Egia esan, lasaitu egiten nau. Hala ere, norberaren gogo-aldarteak zerikusit handia izaten du. Batzuetan erraz egiten ditut, eta bestetan errazago kostatzen zait. Probak egitea ere asko gustatzen zait, nahiz

eta argizariarekin lan eginez gero gehiago arriskatu behar duzun. Olio margotuz gero, zuzenketak egin daitezke, baina argizariarekin hori oso zaila da. Gehiegi iluntzen baduzu, ezinezkoa da argitzea.

Erakusgai eta salgai ere badira zure lanak.

Bai, eta dagoeneko batzuk saldu ditut. Hala ere, oso zaila izaten da norberak egindako lanei salneurria jartzea. Denetarik dago, eta, jakina, txikiak merkeenak dira. Niretzat erakusketak jartzea kontu berria da, baina jendearen iritzia jakiteko balio izango dit. Jende askok ez zekien margotu egiten nuenik. Horregatik, nire zaletasuna ezagutzera emateko balio du.


Laster Donostian jarriko duzu erakusketa.

Bai, ekainean jarriko ditut lanak ikusgai Donostian, Kursaleko kafetegian; une honetan erakusketa horretarako ari naiz margotzen. Koadro asko berriak izango dira, baina Bergarako salmenten arabera izango da. Saltzen ez ditudan batzuk ere eramango ditut Donostiara.

Probak egitea gustuko duzula esan diguzu. Zerbait berria egiteko asmorik?

Olio margotzen ikasten ari naiz, duela hilabete bi hasi nintzen. Baina ikasteko baino ez da, nahiago baitut argizarizko margoekin lan egin. Irudimena gehiago lantzen dudala iruditzen zait. Eguneko zein unetan margotzen duzu?

Gehienetan gauez. Etxean estudio bat dut, eta bertan aritzen naiz, batzuetan musikarekin.



MARIA AGIRRE

“Nire kontura ikasi nuen, lagun batek animatuta; margotzeak lasaitu egiten nau”

“Ekainean Donostian jarriko dut erakusketa; une honetan horretarako ari naiz lanean”

KULTURAPILULAK

The Toy Dolls ikustera joateko sarrerak agortu

Ikusle kopuruari dagokionez, behintzat, arrakastatsua izango da The Toy Dolls talde britainiarrak gaur Bergaran eskainiko duen kontzertua. Ikusmin handia piztu du taldearen itzulerak, eta sarrera guztiak agortu egin dira. Emanaldia Jam aretoan izango da, eta Gatillazok — Evaristoren taldea — ere joko du. Punk estiloa lantzen duen talde britainiarrak bien bitartean, disko berria aurkeztuko du: *Our last album* izenekoa. Gaueko 10etan hasiko dira kontzertuak.

Megadeth eta Diamond Head datorren egunean

Hilaren 24an, Megadeth eta Diamond Head taldeen kontzertua izango da Jam aretoan. Iluntzeko 8etan hasiko da kontzertu hori, eta sarrerek 28 euro balio dute, bai aurrez zein lehiatilan erosiz gero. Hilaren 26an, bestalde, Enslaved eta Vreid taldeen txanda izango da.

Koldo Eleizalde lehiaketako lanak aurkezteko epea

Apirilaren 8an bukatuko da Koldo Eleizalde Literatura Lehiaketako lanak aurkezteko epea. Bergarako udaletxean aurkeztu behar dira lanak. Ipuin, bertso, komiki eta ipuin kontaketa edo antzerki sailetan esku hartzeko aukera dago. Bergaran jaio, bizi edo lan egiten dutenei zuzenduta dago lehiaketa hori. Maiatzaren 21ean emango dira sariak.

Amodiozko gutunen irabazleek bertsoak kantatu zituzten

M.A.

Joan den astelehenean, San Valentin egunez, banatu zituen Jardunek Amodiozko Gutun Lehiaketako sariak. Azken urteetan legez, ez zen jende askorik hurbildu sari banaketa ekitaldira.

Jende askorik ez, baina giro ona izan zen nagusi ekitaldiak iraun zuen bitartean. Gainera, amaieran, bertsoak kantatu zituzten lehenengo sari biak eskuratu zituztenek: Nahikari Gabilondo eta Alaitz Sarasolak. Biak hala

biak bertsolari izanik, egunarekin lotutako bertsoak abestera ausartu ziren.

GUTUNAK ERE IRAKURRI ZITUZTEN

Sariak jaso bai, baina amodiozko gutunak ere irakurri behar izan zituzten saridunek. Lan hori egitea egokitu zitzaion lehena Goiatz Labandibar oiartzuarra izan zen. Gazteen sailean, Goiatzek jaso zuen 100 euroko saria. Jarraian, Josu Arantzabal bergararren txanda izan zen, eta, herriko euskalkian idatzitako gutuna zenez, Josuk irakurrita idazlanak asko irabazi zuela aipa-


tu zuten ekitaldira gerturatutakoek. Irakurketaren ondoren, 150 euroko saria jaso zuen bergararrak.

Eta bukatzeko, Nahikari Gabilondo zarauztarraren eta Alaitz Sarasola ordiziarraren txanda etorri zen. Hurrenez hurren, nork bere gutuna irakurri zuen. Nahikarik, bigarren sariduna izanik, 240 euro jaso zituen, eta Alaitzek, berriz, 450, lehenengo saria lortzeagatik. Esan bezala, ondoren bertsoak kantatu zituzten bi neskek, biak ere bertsolariak baitira. Argazkiak ateratzeko tarterik ere izan zen.



IRATI AGIRREAZALDEGI

Joan den astelehenean, San Valentin egunez, banatu zituen sariak Jardunek.



Giartzu

KARATE KLUBA
Boni Laskurain 3
Tel.: 943 76 35 71GIPUZKOAKO
KARATE
FEDERAZIOA

ZORIONAK!

Giartzu Karate Klubean zabilzaten guztioi, 2004an lortutako emaitzengatik

Giartzu karate kluba

Giartzu Karate Klubak 30 ikasletik gora ditu: bi gerriko beltz, bi gerriko marroi, lau gerriko urdin, eta abar.

2004ko ekitaldi nagusiak:

- Umeak: eskola kirolean Gipuzkoako eta zonakako txapelketetan oso emaitza onak.
- Kata infantil mailan bigarren postua: **Gorka Maiztegi**.
- Alebin mailan hirugarren postua: **Maria Centeno**.
- Gipuzkoako infantil txapelketan parte-hartze ona.
- Udaberriko Karate Jaialdia.
- Gabonetako karate jaialdia: Kata alebin mailan, gerriko laranja arte hirugarren postuan **Olaia Cusi** eta gerriko berdera arte hirugarren postuan **Marina Centeno**.
- Ekainaren 4an Bergarako Labegaraietako kiroldegian, Debagoieneko II. Kyokushin klubaren arteko txapelketaren antolaketa. Parte-hartze handia Aretxabaleta, Arrasate eta Bergarako kirolariek. Kata eta Kumite gazte mailan lehen postuak.
- Gazte maila: martxoan Gipuzkoako txapelketan Kumite lehen postuan **Jon Gantxegi** eta bigarren postuan, **Julen Iñurrieta**.
Euskadiko Txapelketan Kumite hirugarren postuan, **Julen Iñurrieta**.
- 14 eta 17 urte artekoen promozio txapelketa, Kata gizonezkoak: lehen postuan **Jon Gantxegi**.
- Senior maila: II. klubaren arteko txapelketan parte-hartzea.
- Udako Ikastaroa: urtero egiten da Orion asteburuko ikastaro bat; bertara 50 kirolari joan ziren.
- Maiatzean eta abenduan mailaz igotzeko bi azterketa egin zituzten infantil mailakoek eta nagusi mailakoek.
- Galiziako Chantada Karate Klubarekin batera estilo askotariko lehenengo ikastaroaren antolatzaileak. Ikastaroa eman zuten karate, kempo, taekwondo eta nahansun izen handia duten irakasleek. Ikastaroan 54 kirolarik hartu zuten parte; Bergarako eta Arrasateko 22 kirolari barne.

Arduradunak:

- **Karate Klubeko senseia (irakaslea): Luis Muñoz.** Hirugarren dan gerriko beltza eta eskualdeko epailea. 100 ikasle baino gehiago ditu bere ardurapean. Gipuzkoako Karate Federazioko Zuzendaritza Batzordeko kidea.
- **Maria Isabel Hurtado, Giartzu Karate Klubeko zuzendaria.** Kirol entrenatzailea Santiago Unibertsitateak emandako tituluarekin. Gipuzkoako Karate Federazioko Zuzendaritza Batzordeko kidea.

Federatuta egotearen garrantzia:

- Espainiako Karate Federazioak eta Kirol Kontseilu Gorenak homologatutako titulu ofizialak.
- Giartzu Karate Kluba Espainiako, Euskadiko eta Gipuzkoako karate federazioetako kide da.
- Mediko-asegurua: zure Klubean edo txapelketaren batean.
- Federazioko batzordeetan parte-hartzea. Txapelketetan parte-hartzea.

**Mila esker, guztioi, zuen konfiantzagatik.
Mila esker, sensei Luisi, bere arduragatik.**

Maria Isabel Hurtado

ZAHARREN ETXETIK

Larri ari dira San Joxepen, elkarteko zuzendaritza berritzeko kide berrien bila

MARIA AGIRRE

Egoera "dramatikoa" dela esan digu Juanito Iturralde San Joxepe elkarteko presidentek. Zuzendaritza berritu nahi dutela eta, kide berrien bila ari dira. Hala ere, erraza ez dela adierazi digu. Ez dute erabaki larririk hartu nahi, baina kide berriak taldera gerturatzeko ez badira, elkartearen ekintzetan asko igarriko dela ohartarazi dute.

APIRILEAN BERRITU NAHI DUTE TALDEA
Elkarte guztiek bezala, San Joxepe ere zuzendaritza berritzeko ordua iritsi zaio. Presidenteak esan digunez, hiru kide berri behintzat sartu beharko lirake zuzendaritza batzordean. Hamar kidek osatzen dute zuzendaritza, eta hiruk uzteko asmoa azaldu dute. Era horretan, otsailaren 28a baino lehen aurkeztu behar dira kandidaturak San Joxepe elkartearen. Zuzendaritza berritzeko bilera, berriz, apirilean egingo dute. Beraz, hil horretatik aurrera egingo luke lan talde berriak. Baina Iturralde pre-



ARTXIBOA

Irudian, joan zen urteko batzar orokorreko irudi bat.

sidenteak ezkorra da, eta hiru kide berri ez dituztela hain erraz aurkituko esan digu. "Jendea ez dago konpromisoak hartzeko gertu, eta beste batzuek, erreti-

ratu berri direla eta, denbora tarte bat emateko eskatu digute. Baina taldea berritu beharra dago, batzuk nekatuta ere badaude eta. Beraz, nahitaezkoa da

Otsailaren 28rako aurkeztu behar dira kandidaturak, eta apirilean berrituko dute taldea

jendea aurkeztea", adierazi du Iturraldek.

Ez dute aparteko neurririk hartu nahi, baina taldean kide berriak sartzen ez badira, kopurua gutxitu eta ekintzetan igarri egingo dela esan digu. "San Joxepe elkartearen hitzaldiak, irteerak, festak, jokoak eta beste hainbat ekintza antolatzen dira, baina gutxiago bagara, ezin izango da hori guztia antolatu". Era berean, ezohiko bilera deitu, eta zozketa eginez zuzendaritza berritzea beste aukera bat litzatekeela jakinarazi digu. "Hala ere, ez genuke horretara iritsi nahi".

Gaur egun 1.653 bazkide ditu San Joxepe elkarteak. 1997an eratu zen erretiratu eta pentiodunen elkarteak.

LABUR

Eguaztenean sagardotegira doaz 115 erretiratu

Datorren eguaztenean, hilak 23, Usurbilgo sagardotegi batera joango dira San Joxepe elkarteko 115 bazkide. Goizean, Hernanin, Txillida Leku bisitatuko dute gidari batzuen laguntzarekin. Txillidaren eskulturak ikusi ondoren, autobusa hartu eta Usurbilera joango dira. Saizar sagardotegiko sagardoa edateko aukera izango dute erretiratuek. Arratsaldean, berriz, Zumaiara abiatuko dira, kostaldeko herrian bueltatxo bat egitera, eta gauean itzuliko dira Bergarara. Arrakasta handia izan du sagardotegira egingo duten bidaiak, bi autobus segituan bete baitituzte. 38 euro ordaindu behar izan du bazkide bakoitzak, sagardotegira egingo duten bidaiaren esku hartzeko.

Gaur meza, iaz hil ziren San Joxepeko bazkideen alde

Gaur, 19:30ean, meza izango da, iaz hil ziren San Joxepeko bazkideen alde. Sierbetan izango da meza. Aurrez, baina, San Joxepe elkarteko zuzendaritzak bilera egingo du. Zuzendaritza berritzeko ahaleginean egin diren gestioen berri emango dute. 16:30ean hasiko da batzarra.

Horrez gain, aurrera begira egingo dituzten irteerak zehazten ari dira zuzendaritzako kideak. Martxoan Donostiara edo Bilbora egingo dute bidaiak. Donostiara joanez gero, Miramon inguruak bisitatzea izango da helburua. Miramonen dago, esaterako, Kutxaespazioa, eta bertan, zientziaren inguruko argibideak ematen dituzte. Bilbora joatea erabakiz gero, berriz, Euskalduna jauregiaren inguruak ikusiko dituzte. Hala ere, oraindik erabaki barik dago zein hiritar joan. Laster erabakia hartu, eta izena emateko epea irekiko dute San Joxepen.



Sarrerako zuhaitza ebaki egin dute

Joan den astean, moztu egin zuten San Joxepe egoitzako sarreran zegoen arbola. Egoera txarrean egonik istripuren bat eragiteko arriskua zegoela eta, Udaleko langileek bota egin zuten zuhaitza. Bereziki adarrak errepidera jausteko arriskua zegoen.

Zume negartia zen (Salix babylonica) horrenbeste urtez sarreran egon den zuhaitza, eta laster, haritza jarriko dute haren ordez. Arboleak, urteak iraun arren, epe bat izaten dute, eta zumeari ere agur esateko ordua iritsi zitzaion.

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak

Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

Dixula
BOKATAK
DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 beheak
943 76 59 54 BERGARA

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein da Mekolaldeko zubi honen izena: Lezubi, Lezarri ala Lezaurre?

GALDEDEBALDE

- | | | |
|---|--|---|
| <p>1.
Nor da Gizarte eta Erakunde Harremanetarako diputatua?</p> <p>A/ Iñaki Ugarteburu.
B/ Fernando Tapia.
C/ Antxon Jaime.</p> | <p>2.
David Urbina entrenatzaile lanetan dabil Taun. Zein mailatan?</p> <p>A/ Kadete mailan.
B/ Gazte mailan.
C/ Senior mailan.</p> | <p>3.
Zenbat bazkide inguru dauzka San Joxepe erretiratuen elkarteak?</p> <p>A/ 2.100.
B/ 900.
C/ 1.600.</p> |
|---|--|---|



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

AINHOA LETErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Ainhoa! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: 75 urte, Miguel Altuna ikastetxea./ Galde debalde: 1-C, 2-B, 3-B.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Martini gorria edo zuria
Litroko botila


5,15 €

857 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Ataun herria iruditzen.



ATAUN

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

Ganbara
TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel.: 943 76 55 75

Irrintzi
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

BERGARAROSPETSUAK

Roman
Oiartzabal (I)

DONATO GALLASTEGI (BERGARAKO KRONIKAK)

A taunen jaio zen, 1883ko otsailaren 28an. 1909an etorri zen Bergarara, mediku titular izendatu zutelako. Medikua bizi-bizia zen, eta hil arte jardun zuen lanean, 88 urte arte, hain zuzen ere. Ikaslegaraietan, Pianoa eta Harmonia ikasi zituen, besteak beste, On Bizente Goikoetxea konpositore ezagunarekin. Errege Kaperako tenore izateko aukera eman zioten, baina aita zeharo tematuta zegoen semea, hura bezala, medikua izan zedin, eta ez zion utzi. Oiartzabal musikaren *birusak* jota zeuden beste bergarar batzuekin batu, eta koruak antolatzen hasi zen.

1923an, gure Orfeoak Santandereko lehiaketa batean hartu zuen parte, Bilboko Lagun artea eta Durangues Orfoiarekin. Bergarak lehen saria irabazi zuen. Sari hark oihartzun handia izan zuen. Jendetza handia bildu zen Orfoiari Santandertik bueltan harrera egiteko. Azken entseguak Epaitegiko eskolan eta Irizar lorategietan egin zituzten, atari zabaleko lehiaketa zelako, eta Iruñeko Orfoiko zuzendari Remigio Muxika bergarar ospetsuak gainbegiratu zituen.

Musikaren birusak jotako beste bergarar batzuekin elkartu eta koruak antolatzen hasi zen

ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

Dantzari gazteak frontoi aurrean

Antzuolan sekula ez da falta izan dantzaririk. Aratusteetan, herriko jaietan zein euskal jaietan, dantzariak euren saioa egin izan dute beti. Plazan batzuetan eta pilotalekuan besteetan.

Honako argazkia pilotaleku aurrean ateratakoa da, hain zuzen ere. Erretratua dantza saioaren aurretik edo ondoren aterako zuten.

Seguru aski, Ikurrin Dantza egingo zuten, ohikoa izateaz gain, dantzarietako bat Ikurrinarekin agertzen delako.

Dantza taldeko gaztetxoak daude erretratuan, lau kintatakoak.

Zutik, ezkerretik eskumara: Gotzon Iparragirre, Ander Aranguren, Julen Iparragirre, Aintzane Iraeta, Bakarne Larrea, Alex Muxika, Amaia Etxaniz, Iñaki Legorburu, Argiñe Agirre, Gentzane Altzelai eta Jone Legorburu.

Makurtuta, erdiko ilaran: Luis Larrea, Jon Legorburu, Jone Larrañaga, Monika Zabalo, Itziar Larrea, Maite Toledo, Mikel Iraeta, Ana Maite Errasti, Eli Etxaniz, Lore Kerexeta, Amaia Pildain, Mirari Lariano, Olatz Altzelai, Iñaki Zubillaga eta Xabier Larrea.

Makurtuta, aurreko ilaran: Miren Karnele Iparragirre, Iruñe Etxaniz, Amaia Toledo, Miren Arantzazu Garitano, Jaione Toledo, Josune Zabalo, Axier Aranguren eta Gotzon Ezkurra.

Argazkia: Jose Luis Agirre



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

ezpeleta

Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta
egoitzetarako
mahai-zapi eta
industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tel.: eta faxa: 943 76 17 09

EDEL TAPIZ DENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,
koltzak, edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

OGIZUN koop. elk. okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko otsailaren 18a / 233. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Udalak pintada gehiago ez egiteko eskatu du

IRATI AGIRREAZALDEGI

Azkenaldian hainbat pintada agertu dira herriko kaleetan. Pintada horiek garbitzeak kostu ekonomiko handia izateaz gain, eraikinak ere kaltetzen ditu. Beraz, Udaletik eskatu dute pintada gehiago ez egiteko eta beste espresio bide batzuk erabiltzeko.


Udalak, prentsa ohar baten bidez, gaitzetsi egin ditu herrian azkenaldian egin dituzten pintadak. Bide batez, herritarrei eskatu die pintadak egiteari uzteko, esanez, "edozein herritar, talde politiko edo elkarteren eskura dauden bitartekoak erabiltzeko".

Idatziaren arabera, "ekintza horiek ez dute inolako justifikaziorik eta guztion artean espresio bide alternatiboak aurkitu behar ditugu, arazo horiei aurre egiteko".

Izan ere, pintadak garbitzeko azken lanek 10.000 euroko kostua izan zuten. Azkenaldian egin direnak garbitzeko, berriz, 2.000 euro inguru gastatu beharko dituztela zehaztu dute.

HESSIA GARGI

Udalaren esanetan, "guztiok nahi dugu herriak irudi erakargarri




Azken pintadak garbitzeko 2.000 euro beharko direla zehaztu dute.

eta garbia izatea. Bizilagun guztiok ahalegin ekonomiko handia egin behar dugu Udalak garbiketa zerbitzu egokia edukitzeko". Udalak bestelako inbertsioetan erabil daitezkeen fondoak pintadak garbitzeko bideratzen ditu.

Gaineratu dute pintada gehienak harrizko fatxadetan gainean egin ohi dituztela, eta garbiketek kalte handiak eragiten dituztela balio arkitektoniko handia duten materialetan, produktu gogorrak erabiltzen baitira.

ERREFERENDUMA



Olaran etxean egongo dira bi hauteskunde-mahaiak.

Bozkatzeko aukera 1.723 antzuolarrek

I.A.

Domekan izango da Europako Konstituzioaren gaineko erreferenduma. Bertan 1.723 antzuolarrek eman ahal izango dute botoa. Bi mahai egongo dira Olaran etxean, eta herritar hauek osatuko dituzte hauteskunde-mahaiak.

Lehenengo mahaietan Harri Arin izango da mahaiburua eta ordekoak Asier Intsausti eta Anton Biteri. Lehenengo mahaiakidea Mikel Martin Alberdi da eta

ordezkoak, berriz, Erkaitza Lazabal eta Andoitz Arantzola. Bigarren mahaietan Isaac Arrieta da bigarren mahaiakidea eta ordezkoak Esther Irujo eta M. Josefa Fernandez.

Bigarren mahaietan Sonia Rodriguez da eta ordekoak Milagros Larrea eta Jone Larrea. Lehenengo mahaietan Pedro Jose Lete, eta ordekoak Iker Murua eta Antonio Juaristi. Bigarren mahaiakidea Arantza Lizarralde eta M. Del Pilar Lizarralde eta Antonia Luna ordekoak.

MENDIA

Antzuolari bira emango diote, menditik, datozen bi asteburuotan

I.A.

Datozen bi igande goizetarako mendi irteerak antolatu ditu Arrola Mendi Elkarteak. Antzuola eta inguruko mendizaleendako zailtasun handirik gabeko bi ibilaldi izango dira, lau eta bost ordu bitartekoak biak. Kirola egiteaz gain, herri ingururak eta bide berriak ezagutzeko aukera izango dute parte hartzen dutenak.

Ibilaldiotan parte hartzeko ez dago izena eman beharrik, nahikoa da otsailaren 20an eta 27an 08.30ean plazan agertuta.

Domeka honetan Zorrosko ingurutik Trukarrietako iturri joango dira, eta ondoren, Landarraiztik Arrolako gailurrera igo. Bertatik, bista politaz gozatu ostean, Sokomendi inguruko pagadietan barrena Altzetara iritsi eta Loieteta eta Urkuillatik berriz plazara joango dira.

IRIMORA

Otsailaren 27an, Basaldera joan eta San Blas ermitatik pasatuta Erautza baserritik Madariaga ingurura igoko dira. Boto gainera irimo gailurrera heldu arte. Trekutzera joan eta Pagamendi, Kostarratza eta Azkue gaina pasatuta Lizarraga suzotik plazara bueltatuko dira.

Bi ibilbideok ez dute zailtasun, Arrola eta Irimoko aldiak izan ezik.



Antzuola inguruko mendietan barrena egingo dituzte ibilaldiak.

ELKARRIZKETA

OSKAR TORRES/TAI-CHI IRAKASLEA

“Gorputz eta buru osasunarendako borroka arte egokia da tai-chia”

I.A.

Bergarako Oskar Torresek tai-chi eskolak eman go ditu Antzuolan martxoan hasita. Eta hari galdetu dizkiogu borroka arte horren nondik norakoak. Horretaz gain, interesa dutenei probatzeko gonbita egin die.

Zer da tai-chia?

Txinako borroka arte bat da, osasunera bideratuta dagoena, bai gorputzaren osasunera eta baita burukora ere.

Jende askok nahasten ditu yoga eta tai-chia. Zein ezberdintasun dago bien artean?

Antzekotasun asko dituzte, baina yoga budismotik jaiotakoa da eta tai-chia taoismotik; beraz, horrek nahikoa ezberdintzen ditu. Bestalde, bien helburua osasunarendako ona izatea bada ere, tai-chian ariketa fisikoa yogan baino gehiago lantzen da. Energia lantzen dugu, bai kanpoko eta baita barrukoa ere.

Edonork egiteko modukoa da tai-chia?

Edonork egin dezake. Hala ere, umeendako tratamendua ezberdina izango litzateke. Izan ere, umeek berezko energia dute.

Tai-chia osasunarendako ona dela esan duzu. Beste ariketa batzuk baino hobea da?


Nire ustez bai. Gorputza sasoi onean egoteko egiten ditugu ariketak, baina, horrez gain, burua ere osasuntsu edukitzea da helburua. Horretarako, tai-chiaz gain, chi-kun eta tui-sou ere lantzen ditugu. Lehenengoa barne energiari lotuta dago; bigarrena, berriz, bi pertsonaren arteko energia lantzeari.

Nolako ariketak dira?

Oso mugimendu lasaiak izaten dira; eskolak edozeinendako izanik, ez ditugu saltoak eta antzerako ariketak egiten.

Baliabide edo tresna berezirik behar da?

Ez, arropa erosoarekin joanez gero nahikoa da.



I.A.

“Oso mugimendu lasaiak egiten ditugunez, edozeinendako modukoa da”

Nola animatuko zenuke jendea ikastarora joateko?

Yogak booma izan du, baina tai-chia oraindik ezezaguna da, eta jendea erreparatu pixka batekin etortzen da eskoletara. Probatzeko baino ez nieke esango.

“Tai-chia oraindik ezezaguna denez, jende erreparatu pixkatekin etortzen da eskoletara”

Beste borroka arterik egiten duzu tai-chiaz gain?

Bai, txikitatik hasi nintzen shotokan eta karate gojuryu borroka arteak praktikatzen. Orain, nire entrenamendu pertsonala horretan oinarritzen dut.

ERRETIRATUAK

Erretiratuen batzordea berri nahi dute

I.A.

Martxoaren amaiera aldera Erretiratuen Elkarteak urteko batzar orokorra egingo duela jakinarazi digute.

Bilera horretan, batzordeko lau kidek euren lekua utziko dute beste batzuk sartzeko. Jesus Agirre, Juanita Zabalo, Mariluz Arregi eta egungo presidente Asensio Azkarate dira, hain zuzen ere, lau horiek.

Hori dela eta, batzordeko kideek deia egin diete elkarteko gaitzetzeko erretiratuak eurek ere batzordean parte hartzeko. Egun, 365 kide ditu elkarteak eta batzordea zortzi lagunek osatzen dute.

IZENEMATEA

Horretarako, gogoia eta borondatea dutenek iradokizunen kutxan utzi beharko dute euren izena paper batean idatzita otsailaren 25a baino lehen.

LABUR

Txirrindulari lizentzia egiteko aukera egongo da egunotan ‘Kaxeta’-ren dendan

Lokatza taldeak bultzatuta, txirrindulari lizentziak egiten dihardute egunotan. Norbaitek atera nahiko balu *Kaxetak* Eguzki Auzoan zabaldu duen dendara joan beharko luke; astegunetan arratsalde edo zapatu goizetan. Lehendik lizentzia dutenak berritzen ari dira, baina bada errepidean eta mendian bizikletan lizentziarik gabe dabilenik. Batez ere horiek lizentzia egitea da Lokatza taldeak kanpaina horrekin lortu nahi duena.

Kale garbitzaile lanpostua betetzeko oposizio lehiaketa egingo du Udalak

Udalak kale garbitzaile bat kontratatu nahi du, eta lanpostu hori betetzeko oposizio lehiaketa egingo du. Hala, hautaketa probetarako izena eman nahi dutenek martxoaren 3ra arte izango dute. Eskara orriak eta baldintzak udaletxean bertan eskuratu ahal izango dira.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Otsailak 19
16:00: Antzuola-Urki (2. kadeteak)
Otsailak 20
11:00: Antzuola-Vasconia (Infantil maila)

PILOTA

Otsailak 19
16:30: Antzuola-Real Sociedad (Pala motza)

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 1 Urki 1 (2. erregionala.)
Antzuola 5 Eibarrak 0 (2. gazteak)
Bergara 3 Antzuola 1 (2. kadeteak)
Almen 7 Antzuola 0 (Neskak)
Ordizia 3 Antzuola 3 (Infantil maila)

PILOTA

Zumaia-Olalde (Pala motza) . . . 40-27
Olalde-Lazkao (Nagusiak eskuz) . 22-9
Olalde-Añorga (Kadeteak eskuz) 22-12

LEKY-BERRI MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

DEKORAZIOA

ABAD

PINTURAK

ANTZUOLA

PAPER PINTATUAK

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak


Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko otsailaren 18a / 216. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegí • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



El Decameron antzerki lana egingo du gaur gauean Ados Teatroa konpainiak Espaloian.

Antzerki, musika, poesia eta argazkiak Espaloian

IRATI AGIRREAZALDEGI

Ekitaldiz beteta dator asteburua Espaloian, eta datorren asterako ere bada iragarrita ikuskizunik. Antzerkia, Korrika Kulturalaren baitan egindako kontzertua eta argazki erakusketa baten inaugurazioa egingo dituzte asteburuan, eta poesia emanaldia egunean.

Gaur, barikua, Ados Teatroa konpainiaren eskutik *El Decameron* antzezlan ikusteko aukera izango da, 22:30ean.

Boccacioren ipuin bilduma bat da *El Decameron*; Antonio Vitoria eta Garbi Losadarena, berriz, Espaloian antzeztuko duten bertsoa. Erotismoak indar handia du lan horretan, baita umoreak eta ironiak ere. Espaloiko taula gainean Javier Barandiaran, Josean Bengoetxea, Jon Ezkurdia, Alvaro Garaialde eta Martxelo Rubio aktoreek jardungo dute. Sarrerak 12 euro balio du; Goibekoko bazkideendako, berriz, 10 euro.

Zapatuan, Korrika Kulturalaren baitan kontzertua izango da, 22:30ean. Bertan jardungo dute

Afrika Bibangek, Korrikako kantuen egileak; Fjord taldeak; eta Sharon Stonerrek, Danbaka lehiaketako irabazle izan den talde oñatiarrak.

KORRIKAREN KANTUA

Afrika Bibangek bere doinu bero eta berritzaileekin Korrika 14aren mezua zabaldu nahi du kantuan. Abestiaren izenburua *Ni ere bai da*, aurtengo korrikaren leloa, hain zuzen ere; eta euskara ikasiz eta erabiliz, gure hizkuntza zaintzeko deia egiten du *jungle* erritmoan.

Fjord taldea Etsaiak, Ekon eta Su Ta Gar taldeetan jardundako lau kidek osatzen dute. Metala, punk-rocka, popa, rock-and-rolla eta hard-rocka izango dira entzungai euren eskutik.

**Zapatu gauean
Afrika Bibang, Fjord
eta Sharon Stoner
izango dira
kontzertuan**

Kontzertua osatzeko, Danbaka lehiaketan irabazle izan ziren Sharon Stoner oñatiarrek stoner rocka eskainiko dute.

ERAKUSKETA

Bestalde, domekan inauguratuko dute Antonio Irisarri argazkilarriaren 42 lanekin erakusketa. Martxoaren 2ra arte izango da ikusgai. Irisarri Eibarren bizi den lizarrarra da. Parkinson gaitza du, eta gaixotasuna hobeto eramanen laguntzen dio argazkilaritzan jarduteak. Erretratuak egiten ditu batez ere, eta sarritan bere argazkiak eskaneatu eta ordenagailuan aldatzen ditu.

Eguenean, berriz, poesia eta ikus-entzunezkoak uztartzen dituen *Arrakalak* emanaldia ikusteko aukera izango da, 20:00etan. Bihotz Bakartien Klubeko Gotzon Barandiaranen poemekin osatutako saioa izango da, eta animaziozko irudiz lagunduko dituzte poemok, baita musikaz ere.

Datorren astebururako, bertso saioa iragarri dute batetik. Barikuan 22:30ean izango da. Bestetik, zapatuan, kontzertua eskainiko du, 22:30ean, Arrasate Musikaleko Big Band delakoak.

KIROLA

Areto futbol txapelketa martxotik ekainera

I.A.

Udal Kirol Zerbitzuak areto futbol txapelketa antolatu du Elgeta eta inguruko taldeendako.

Martxoaren 9an hasiko da eta ekainaren 18ra bitartean egingo dute txapelketa. Izena emateko azken eguna, berriz, martxoaren 9a izango da. Elgetako Kirol Zerbitzura jo beharko da: 943 76 8022

telefonora deituz edo mezu bidaliz kirola@elgeta.net helbide elektronikora.

SARIAK

Talde bakoitzak 30 euro ordaindu beharko ditu parte hartzean eta beste 30 euro fidantza gisa.

Irabazleak 180 euroko saria eta garaikurra jasoko ditu; bigarrenak 90 euro eta garaikurra.

ERREFERENDUMA

Udalak eta eragileek, Europako Itunari ezetz

I.A.

Domekan egingo da Europako Itunaren gaineko erreferenduma eta herriko hainbat eragilek Europako Konstituzioari Ez! izenburua duen testua sinatu dute.

Aralar, Elgeta Auzolanian, Forjanor eta Recydeko komiteak, Esna Hadi, Maya Ingurumen Taldea, Gaztetxea eta Euskal Herrian Euskaraz izan dira ezezkoren alde egin dutenak.

Hamar puntuko idatzia onartu dute, eta bertan, besteak beste, zera adierazi dute: "Estaturik

gabeko nazioak desagertu eta hitzera kondentzen ditu. Euskal Herriaren izena, identitatea eta izana ukatzen ditu. Ez du autodeterminazio eskubidea onartzen". Euskara, ingurumena, ekonomia... ere aipatu dituzte testuan.

UDALAK ERE, EZEZKOA

Bestalde, martitzenean osoko bilkura egin zuten udaletxean, eta konstituzioari ezezkoa emateko erabaki zuten. Aralarko hiru zinegotziek eta EAko Inaki Ugarte buruk egin zuten ezezkoren alde eta gainontzekoek aurka.



Eragileek eskatu dute Europako Itunaren erreferendumean ezezko botoa emateko

ELKARRIZKETA

AFRIKA BIBANG/ABESLARIA

“Ikuskizunean kolorea eta musika izango dira nagusi”

I.A.
Afrika Bibang da Korrika 14aren kantuaren egilea. Korrika kulturalaren baitan kontzertua egingo du, Espaloian, zapatuan, Fjord eta Sharon Stoner taldeekin batera. Kantu horri eta bere ibilbideari buruz galdetu diogu.

Hainbat taldetan ibili ostean, orain bakarka diharduzu. Nola doa ibilbide berria?

Etsaiak taldearekin hasi nintzen orain dela 11 urte eta gero bakarkako bideari ekin nion. Hasieran ez nekien nola joango zen nire bakarkako jarduna, baina momentuz ongi doa, pixkanaka erritmoa hartzen ari naiz.

Zein estilotako musika egiten duzu orain?

Ez daukat estilo finkorik. Nire diskoan denetarik dago, estilo guztien nahaste bat dela esan daiteke. Entzun daitezke hip-hopa, soula, jazz...

Korrikako kantuaren egi-lea zara. Nolako da Korrika 14aren musika banda?

Oso erritmikoa da, dantzagarria. Nire estiloa, jungle estiloa, plazaratu nahi izan dugu honela. Musika lagun artean egin dugu, nik oraindik ez baitaukat erraztasun handirik horretarako.

Eta zer dio kantuak?

Hitzak errazak dira, nik neuk egindakoak. Ni ere bai da kantuaren leloa. Jende guztia euskara ikastera animatu nahi da; bai gazteak, zaharrak, atzerritarrak zein hemengoak.

Zuk euskaraz jarduten

“Korrikako abestia oso erritmikoa eta dantzagarria da, ‘jungle’ estiloa plazaratzeko egina”

duzu. Abestuko zenuke beste hizkuntzaren batean?

Bai. Entzun izan dudana musika, jazz, bluesa... ingelesez entzun izan dut beti, eta abestu ere abesten dut ingelesez beste talde batekin. Portugesez edo brasildarrez ere abestuko nuke.

Hala ere, jendeari arraroa egiten zaio beltz bat euskaraz abesten entzutea, ezta?

Bai, oraindik bai. Jendea harritu egiten da, baina espero dut denborarekin normalagoa izatea eta beltzak ez ezik txinatarrak edo marokotarrak ere euskaraz kantuan eta berbetan entzutea.

Korrikako kantuaz gain, zer eskainiko diozu Elgetako publikoari?

Ikuskizun berezia izango da. Hemen jendea ez dago horrelakoak ikustera ohituta. Kolorea eta mugimendua izango dira nagusi ikuskizuan. Bai nik eta baita nirekin taula gainean izango diren musikariek ere dantzaz jardungo dugu.



AITOR LIZARRALDE

ETXEBIZITZAK

Aralar harrituta, EAJ-EAren adierazpenekin

I.A.
Torrealdeko babes ofizialeko etxebizitzak gainean adierazpenak egin zituzten EAJ-EAko ordezkariak hedabideetan. Adierazpen horiekin bat ez datozela eta, Aralarkoek euren iritzia azaldu dute prentsa ohar baten bidez.

Idatziaren arabera, Aralarrentzat “harrigarria” izan da EAJ-EAko ordezkariak esatea babes ofizialeko etxebizitzak hila-bete eta erdian hasiko direla erakitzen. “Udalean ez du inork horren berririk, eta azken hila-beteetan gai horren gainean galdetu diegunean gaia guztiz blokeatuta dagoela erantzun dute. Gu izango ginatke pozten lehenak hori horrela balitz”.

Zera gaineratu dute: “Hilabete eta erdian lanak hasteko egin daitekeena lehenago ere egin zitekeen. Beraz, EAJ-EA eta batez ere Hirigintza batzordeburua egiten dugu atzerapenaren erantzule”.

Hedabideetan azalpenik ez eman arren Torrealdeko babes ofizialeko etxeak erakitzen hasi ez izanaren arrazoiak zera da: ez dira ados jartzen horiek eraiki behar dituztenak eta etxebizitza libreak erakitzen dihardutenak.

Aralarrekin esan du babes ofizialeko etxebizitzak alde egingo dutela beti. Aralarrekin esane-tan, “batzar publikoa egin behar da lehenbailehen, etxebizitza horien zozketan parte hartzeko baldintzak azalduz eta izena emateko zerrendak zabalduz.



Torrealdean etxebizitza libreak egiten dihardute; babes ofizialekoak ere egingo dituzte.

LABUR

Fruituen zainketa ekologikoari buruzko ikastaroa

Maya Ingurumen Taldeak fruituen zainketa ekologikoaren gainean ikastaroa antolatu du. Martxoaren 3tik 17ra bitartean bost saio egingo dituzte. Eskolak martitzene-tan eta egunetan izango dira, 17:00etatik 21:00etara, Herri Eskolan. Lehenengo saioan lurrari buruz jardungo du Eskualdeko Nekazaritza Bulegoko Alfonso Gonzalezek. Gai-nontzeko saioetan, Xabi Aki-zu frutazainak eskola praktiko eta teorikoak emango ditu. Teknikak eta fruituen babesa irakatsiko ditu, besteak beste. Izena emateko 943 76 18 00 telefonora deitu behar da.

BOLINAGA METALAK

SALBADOR 7 ELGETA 20690 GIPUZKOA
TEL: 943 76 80 64
FAX: 943 76 83 01

RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR ER
Enpresa Erregistratua
ER-0182/2/95
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagotza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

MATRIKULAZIO EPEA:
Otsailaren 14tik 25era Ikastolako
Idazkaritzan
Tif.: 943 76 25 40-41

etorkizunari begira

argazki eta diseinua URKAN S.L.



Mariaren Lagundia Ikastola
Espaloia 1

Tif: 943 76 25 40-41

Fax: 943 76 33 31 e-mail: ikastola@mlagundia.net

